

Talaiosetik urtea bukatu baino lehen software eta teknologia libreak berriro ere mahai gainean jarri nahi ditugu. Horretarako maila oso ezberdinetan bada ere, hitzaldi, mintegi, tailer eta ekitaldiak antolatu edo horietan laguntzeari ekin diogu. Azaroa eta abendua oparoak izango dira, [Ekonomia Sozial Eraldatzaileari buruzko ekitaldi garrantzitsuekin](#) batera.

## **Azaroak 8 (18:00-20:00) - Nell-en eskola: Software eta Hardware librea**

Zer da Software librea? Fidagarria da? Nola atera diezaiokegu probetxua? Gauza bera dira doako programak eta software librea? Eta Hardware librea? Zein da bere lekua software librearen filosofiaren barne?

[button link="https://www.tabakalera.eu/eu/nell-en-eskola" size="small"]Informazio gehiago[/button]

## **Azaroak 17 (9:30-19:30) - SETLEM: Software eta Teknologia librean III. mintegia.**

[UEU](#) eta [Talaios kooperatibak](#) antolatuta SETLEM Software eta teknologia librearen euskal mintegiaren hirugarren edizioa izango da. Euskal garatzaileak, ikertzaileak, ingeniariak, aktibistak, zaleak saretu eta Burujabetza teknologikoaren bideak aztertzea izango dute helburu nagusi. Izena emateko epea laster zabalduko da, baina tailerrak eta hitzaldiak proposatzeko aukera irekia dago.

[button link="http://www.unibertsitatea.net/blogak/ueu365/2016/10/03/software-eta-teknologia-libree-n-mintegia-proposamenak-bidaltzeko-deialdia/" size="small"]Informazio gehiago[/button]

## **Abenduak 2-6 (11:00-14:00 / 16:00-19:00) - Kabi@: Durangoko azokako kultura digitalaren plaza.**

Durangoko Azokako Kabi@ren deialdia. Durangoko Azokaren barnean teknologiaren plazan, kultura, euskara eta teknologia libreak izan ohi dira protagonista. Aurten ere horrela izango da, pribatutasuna, ondare komunari, teknologia libreei, Wikipediari eta jokoei tarte berezia eskainiko zaiolarik. Proposamenak jasotzeko aukera irekita.

[button link="http://durangokoazoka.eus/eu/intra/537-zure-sormen-lana-erakutsi-nahi-duzu" size="small"]Informazio gehiago[/button]

### **Zabaldu:**

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)